

# MOLDAGABEZIA

**Iban Arabaolaza  
Unai Artola  
Xabier Lizarribar  
Miren Retegi**

## **AURKIBIDE OROKORRA**

<b>1. ATALA.....</b>	<b>3-7</b>
1.1. Elkarrizketatuaren soslaia	
1.1.1. Elkarrizketaren deskribapena	
1.2. Galdera sorta	
<b>2. ATALA.....</b>	<b>8-30</b>
2.1. Aktanteak	
2.2. Aktanteen arteko harremanak	
2.3. Testuingurua	
2.4. Instituzioak	
2.5. Arauak	
2.6. Gizarte kontrola	
2.7. Estatua eta kontrol soziala	
2.7.1. Demokrazia eta kontrol soziala	
2.7.2. Desbideratzea/Moldagabezia, Delinkuentzia/Normaltasuna	
2.8. Estigma	
<b>3. ATALA.....</b>	<b>31-69</b>
3.1. Transkripzioa	
3.2. Glosarioa	
3.3. Bibliografia	

## **1. ATALAREN AURKIBIDEA**

- Elkarrizketatuaren soslaia.....4.orri
- Elkarrizketaren deskribapena.....5.orri
- Galdera sorta.....6-7.orri

## **ELKARRIZKETATUAREN SOSLAIA**

Gure elkarrizketatua Polonian jaiotako emakume bat da, orain dela 32 urte, 1975. urtean hain zuzen ere. Bertan, famili ingurune egonkortu batean zegoela, bere senarrarekin ezkondu eta haur bat eduki zuten. Horrela, alabak 5 urte egitera iritsi zenean, alargun gelditu zen. Bere anaia dagoeneko hemen zegoela eta, Urretxura etortzeko aukera suertatu zitzaion. Bizimodua aldatzeko asmoz, etorri egin zen, baina ez bere egoera ekonomikoa hobetzearren.

Gaur egun, bere alabak 9 urte ditu eta Urretxu-Zumarragako Ikastolan ikasten du. Gure subjektuak, Urretxuko enpresa batean egiten du lan, fenoliken mekanizazioan, nahiz eta hainbat lan ezberdinetatik igaro den. Bere asmoa, betirako Urretxun gelditzea da, nahiz eta bere alabak Poloniara itzuli nahi duen.

## **ELKARRIZKETAREN AURKEZPENA**

Elkarrizketa, 2007ko azaroaren 8an burutu zen, elkarrizketatuaren etxean arratsaldeko seietatik iluntzeko bederatziak inguru arte. Elkarrizketa lan hau burutu dugun taldekideetako batek burutu zuen, laurok joatea elkarrizketatuarentzat desatsegina izango zelakoan, eta hala konfiantzazko giro aproposago bat sortu zen. Elkarrizketan zehar, elkarrizketatuaren alaba agertu zen, eta honek esandakoa garrantzitsua iruditu zaigunean bakarrik aipatu dugu. Elkarrizketa burutu aurretik prestatutako galdera sorta jarraian agertzen dugu, baina elkarrizketan zehar inprobisatutako galderak ere agertzen dira, elkarrizketatuak esandakoaren arabera galdera berriak sortzen baitziren, edota galdera bakar batez prestatuak genituen hainbat galdera erantzuten baitzituen. Elkarrizketa, hiru etapa desberdinetan bereiztu dugu;

- 1) Etorri aurretiko bizi
- 2) Etorrera
- 3) Egokitzapena

Lehenengo etapa bere herriko biziaren inguruan doa; bigarrena emigratzeko ideia sortu zitzaionetik hona iritsi zenerainoko biziaz dihardu; eta hirugarrena hemengo bizitzaren historia da.

## **GALDERA-SORTA**

### **1.ETAPA: ETORRI AURRETIKO BIZITZA**

- 1.- Zein da zure bizitzako lehen oroitzapena?
- 2.- Jo al zenuen instrumenturik txikitan?
- 3.- Kirolik egiten al zenuen txikitan?
- 4.- Nolakoa zen zure inguru familiarra?
- 5.- Zenbat anai-arreba zineten?
- 6.- Zertan egiten zuen lan zure aitak?
- 7.- Zertan egiten zuen lan zure amak?
- 8.- Nolako hezkuntza emate zizuten zure gurasoek?
- 9.- Zer izan nahi txikitan?
- 10.- Zer ikasi zenuen? Edo zer ikasi nahi zenuen?
- 11.- Eta zergatik ikasi nahi zenuen ikasi nahi zenuena?
- 12.- Zertan egin zenuen lan?
- 13.- Erlazio sentimentalik izan al zenuen?
- 14.- Zure ustetan, erlijioak pisu handia izan du zure hezkuntza prozesuan?
- 15.- Erlijioak garrantzi handia al du Polonian?
- 16.- Behar bereziengatik hasi zinen lanean?

### **2.ETAPA: ETORRERA**

- 17.- Zerk sortu zizun emigratzeko lehen ideia?
- 18.- Noiz izan zenuen emigratzeko lehen ideia?
- 19.- Norbaitek bultzatzen al zizun emigratzeko ideia burutzeko orduan?
- 20.- Familiari emigratzeko ideia planteatu zenienean, nola hartu zuten zure erabakia?
- 21.- Zenbat denbora igaro zen emigratzea pentsatu zenuenetik, burutu zenuen arte?
- 22.- Zer sentitu zenuen abioiean sartu zinenean?
- 23.- Nola gogoratzen duzu bidaiak?
- 24.- Nora pentsatu zenuen emigratzea? Zergatik?
- 25.- Ezagutzen al zenuen norbait hemen? Honera etortzeko?

### **3.ETAPA: EGOKITZAPENA**

- 26.- Non jarri zinen bizitzen etorri zinenean?
- 27.- Nola lortu zenuen etxebizitza?
- 28.- Zer lanetan hasi zinen?
- 29.- Nola bilatu zenuen lana?
- 30.- Zailtasunik aurkitu al duzu lana lortzerakoan etorkina izanagatik?
- 31.- Jendearen laguntza sentitu al duzu?
- 32.- Etorkina izategatik kualifikatu gabeko lanen batetan egin behar izan duzu lan?
- 33.- Gizarte mailan barneratua sentitzen zara?
- 34.- Etorkina izategatik desberdin tratatzen zaituztela uste duzu?
- 35.- Etorkina eta emakumea izategatik molestatu zaituen lanen bat eskaini al dizute?
- 36.- Zer pentsatzen duzu gaur egungo gizarteaz?
- 37.- Zure alaba desberdin tratatu dutela uste duzu etorkina izategatik?

- 38.- Jaso al duzu inongo burla arrazistarik?
- 39.- Zer oroitzapen dituzu zure herriaz?
- 40.- Mantentzen al duzu hango familiarekin erlazioarik?
- 41.- Zenbat denbora zoaz gaur egungo lantokian lanean?

## **2. ATALAREN AURKIBIDEA**

- Aktanteak.....9-11
  - 1) Aktanteen arteko harremanak
- Testuingurua.....12-14
- Instituzioak.....15-16
  - 1) Familia
  - 2) Eskola
  - 3) Eliza
  - 4) Estatua
    - 4.1) Lege juridikoa/Penala
    - 4.2) Osasuna
    - 4.3) Gizarte Zerbitzua
- Arauak.....17
- Gizarte kontrola.....18-22
  - 1) Estatua eta kontrol soziala
  - 2) Demokrazia eta kontrol soziala
- Desbideratzea/Moldagabezia, Delinkuentzia/Normaltasuna.....23-27
- Estigma.....28-30



## AKTANTEAK

### **-Protagonista**

- Ane (Asmatutako izena)

### **-Familia:**

- Aita
- Ama
- Anaia
- Alaba
- Senarra
- Senarraren ama
- Anaiaren familia

### **-Poloniako lagunak:**

- Angelica
- Beretzat ahizpa bat bezalakoa zena

### **-Euskal Herriko lagunak:**

- Inma (EPAko irakaslea)
- Pedro
- Zumarragako beste poloniar bat

### **-Lan mundukoak:**

- Jai Alai-eko nagusia
- Elgarresta-ko nagusia

### **-Instituzioetakoak:**

- Alabaren irakasleak
- Paperak egin zizkien idazkariak

## **AKTANTE DESBERDINEN ARTEKO HARREMANAK**

Anek aitarekin harreman estua izan du beti, eta gaur egun ere hala da. Familiaren egituran garrantzi handia du, kulturak ematen diolako. Hau da, gizon tradizionalaren rola betetzen saiatu da beti nahiz eta Ane Poloniatik joan zenean, agurtzerakoan negar egin. Anek bere amarekin duen harremana ere oso estua izan da beti, eta gaur egun ere hala da. Amak, emakume tradizionalaren rola betetzen du nolabait. Hau da, nahiz eta etxetik kanpo lan egiten duen eta aitarekin batera seme-alaben heziketaz arduratzen den, ama alderdi sentimentalaz nolabait gehiago arduratzen da, telefonoz hitz egiten, mezuak bidaliz,...

Gurasoen arteko harremana oso ona dela nabari da, eta rol tradizionalak nolabait antzematen diren arren, beraien erlazioa simetrikoa dela esan dezakegu, bikote bezala erabakiak hartzen dituztelako, seme-alaben heziketaz arduratzen direlako, etxeko ekonomiaz arduratzen direlako,... Amak pena bakarra du bere seme-alaben inguruan, goi-mailako ikasketarik ez izatea. Hala ere, irakurtzeko zaletasuna bere amarengandik atera dute.

Bere senarra ezagutu eta erlazio bat hasi zuen berekin 20 urte zituenean. Bere alaba bakarraren aita zen. Elkarrekin zeuden eta betar bizitzen egon ziren, baina hala ere, bananduta bizitzen egon ziren. Gaur egun, bere sentimenduen benekotasuna zalantzan jartzen du. Hala ere, bere heriotzak sentimendu eta pentsamendu aldaketa bat sorrarazi zion, eta gertaera honek bere bizitzan aldaketak sortzeko gogoia piztu zion.

Bere senarrarekin, honen amarengatik ezkondu ziren. Bestela ez baitzien bere etxean batera bizitzen uzten. Honengatik izan ez balitz, Ane ez zela ezkonduko aitortu digu. Esan beharra dugu, lehenik eta behin, alargun gelditu zela, ondoren kotxe istripuz, seme bakarra hil zitzaiola. Gertaera hauek, Ane Euskal Herrira etortzearen ideia gaizki iruditzea ekarri zutela esan genezake. Zuen iloba bakarra, beregandik kilometro askotara egongo zela jakiteak, ez zitzaion asko gustatu. Gaur egun berarekin harremana du, baina hotz xamarra dela iruditu zaigu.

Anaia bakarra du. Biek heziketa berdina jaso dute, desberdintasunik gabe. Bera kamioilaria zen, eta Euskal Herrira lanera etorri zenean, neska bat ezagutu eta hemen gelditu zen berarekin. Ezkondu zirenean etorri zen Ane lehen aldiz gurera. Aneren senarra hil zenean, bere anaiaren emaztea haurdun zegoen, eta hauek Aneri Euskal Herrira etortzeko aukera eskaini zioten, honela bere iloba zaintzeko aukera eskaini zioten. Berak, bizimodua aldatzeko beharra sentitzen zuen, eta bere alabaren etorri zen. Denboraldi bat beraiekin bizitzen egon zen, batez ere gaztelaniaz ikasi arte. Ondoren lana aurkitu eta beraien etxetik joan zen. Gaur egun harremana dute, baina Ane-k ez du bere anaiataz askorik hitz egiten, hemen duen senide bakarra dela kontuan hartuta. Bakoitzak bere bizitza duela dirudi, kontaktuan dauden arren.

Ane-k garrantzi handia ematen dio laguntasunari. Angelica izan da bere benetako eta betiko laguna. Edozein erabaki hartzerakoan, berekin hitz egiten zuen, eta asko lagundu dio. Oso harreman estua izan dute beti, eta gaur egun ere hala da. Euskal Herrira etorri zenean, Angelica etortzea nahi zuen, eta lagunarentzat lana eta etxea aurkitu zuenean, Angelica etorri zen. Hirurak egon ziren pisu batean bizitzen (Angelica, Ane eta honen alaba). Ane eta bere alabari asko lagundu die Angelicak. Baina honek,

Poloniara bueltatzea erabaki du aurten, berak han duelako bere bizitza. Ane eta bere alabak oso gaizki pasa dute, baina hemen jarraitzea egokiena dela erabaki dute. Hala ere, oso harreman estua izaten jarraitzen dute.

Angelicaz gain, Polonian bere ahizpa bezalako zen beste lagun bat zuen. Honekin ere harreman estua izan zuen, baina gaur egun ez dakigu kontaktuan jarraitzen duten.

Euskal Herrira etorri zenean, EPAn hasi zen gaztelaniaz ikasteko. Inma zen bere irakaslea, baina azkenean, beraien erlazio oso estua egin zen eta irakasle izatetik, lagun izatera pasa da. Ane-k asko lagundu diola aitortu du, eta asko estimatzen du.

Lanik gabe eta etxerik gabe gelditu zenean, Pedro ezagutzen zuen, bere lankide zelako. Hau bakarrik bizi zen, eta Ane-ren eta bere alabaren egoera ikusita, bere etxera etortzeko aukera eskaini zien. Ane-k etxeko lanak egingo dituela adostu, eta Pedrok ez dio dirurik eskatuko. Ane-k izugarri eskertzen dio Pedrori bere laguntza, eta benetako lagun bat baino gehiago dela sentitzen du. Hala ere, Ane-ren asmoa bere etxea erostea da, bera eta bere alaba bizitzeko. Lankide bat izatetik, bere benetako laguna izatera pasa da.

## **TESTUINGURUA**

Testuinguruari dagokionean, oso garrantzitsua da elkarrizketatua zein gizartetan, zein herrialdetan, zein egoera sozio-ekonomikoan... bizi izan den edo jaio den. Hori dela eta, lehenik eta behin demografiak eta migrazioak XX. mendean Europan izan duen bilakaera azalduko dugu hasiera batean, horrela garaien araberako demografia aldaketak argi eta garbi ikusi ahal izango ditugu. Hiru garai edo etapa garbi azalduko ditugu labur-labur XX. mende erdialdetik aurrera:

XX. mendearen erdialdean, batez ere migrazioa Frantziara bideratu ziren. Batez ere urtaroko nekazariak, eraikuntza langileak eta etxeko lanetarako emakumeak izango ziren gehienbat, garaian garaiko beharrei erantzun ahal izateko.

Bestetik, 1950 eta 1973. urte bitartean Europako emigrazioak goren unea izan zuen:

- Europari begira, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ekonomia azkar berreraiki zenez, enpleguen eskaintza handia sortu zen eta tokian tokiko langileak ez ziren nahikoa, eta hori dela eta, Europako biztanleriaren hazkundera ahula izan zelako eta gerran jende asko hil zelako.
- Espainiari begira berriz, emigrazioari indar handia eman zitzaion bai hazkunde demografikoarengatik, lana mekanizatzen hasteagatik nekazaritza guneak soberan geratuz. Jomuga nagusiak Frantzia, Alemania eta Suitza izan ziren. Emigrante hauen perfila, gutxi kualifikatutako gizonezkoak (nekazariak, eraikuntza peoiak...) eta hori horrela lan gogor eta gaizki ordainduak gauzatu behar izaten zituzten. Garapen Plana martxan jartzean 60. hamarkada erdialdean emigrazioak behera egin zuen, lanpostuak sortuz joan ziren eta.

Azkenik, 1973. urtetik aurrera aipatu beharra dago Europako emigrazio entengabeak behera egin zuen. Energiaren krisiak Europa mendebaldeko estatuetan langabezia sortu zuen eta eskulanaren kontratazioa jaitsi egin zen. Modu horretan emigrante asko itzuliz.

Hiru aldi hauek argi utzirik, gaur egun migrazioaren eragina nabaria dela argia da, baina Europan barneko emigrazioa jaitsi den bezala, beste herrialde batzuetako emigrazioa nabarmen igo da. Espainian bertan azken urteetan, eta hau gorantz doa pixkanaka pixkanaka, Afrikako bizitza jasan ezin eta Europarantz bizitza duin baten bila datozen eta honanzko bidea hartzen duten pertsonak ugariagoak dira.

Hori guztia dela eta, inmigrantearekiko portaera dela eta, jakin beharra daukagu berauentzat ere egoera hau ez dela batere eroso, beraien gizartea alde batera utzi eta hizkuntza eta ohitura desberdinak dituzten herrialde batera joan behar izan dira, bizibaldintza kaskarrak jasan behar dituzte eta baita lan-baldintza txarrak ere. Gizarte aldatzean egoera berriei aurre egin beharrean aurkitzen dira, baina egoera honetan eroso egon ez eta itzultzeko nahia badute, beraien herriek ere jasan duten egoera eta aldaketetara egokitu beharko dira. Honek bi muturreko arazoak sortuko ditu argi eta garbi.

Ane 1975ean jaio zen Polonian, famili egiturari dagokionean, bere gurasoak eta bere anaiarekin batera bizi izan da. Hasiera batetik, Polonian komunismoaren ezaugarriak nabariak ziren eta gizarte egitura horretan hezi zen. Komunismoa zertan datzan aipatzea garrantzizkoa da et ahoi dela eta argi utzi beharra dago, egoera ongi ulertu ahal izateko.

Komunismoa Karl Marx eta Friedrich Engelsek Agiri Komunista idatzian plazaratu zuten ideologia da. Beraz, komunismoa sistema teoriko bat eta mugimendu politiko bat da. Mugimendu politiko gisa, komunismoak hastapenetatik gizarte klaserik gabeko gizarte bat izan du helburutzat. Honako hau aldarrikatzen du, proletalgoak bere egoeraren kontzientzia eskuratu, bere burua Alderdi Komunistan antolatu, iraultza egin eta boterea eskuratzekoan, proletalgoaren diktadura jarriko luke indarrean.

Aneren gurasoek lanbide egonkorrak zituzten eta honek ekonomikoki segurtasun nabarmen bat eskaintzen zieten. Bere aitak larruen produkzioan diharduen enpresa handi batean lan egiten zuen, baina enpresa hau itxi egin zen eta bere aitak baja hartzeko aprobetxatu zuen 60 urtetaraino. Gaur egun jubilatuta dago. Amari dagokionean irakaslea zen eta beti bideratu zuen Ane lanbide honetara. Beraien egoera ekonomikoa beti izan da segurua, eta horregatik hezkuntza jaso ahal izan dute bai berak eta baita bere anaiak ere, diru faltarik eduki gabe.

Gainera, aipatu beharra dago, elkarrizketan irakur daitekeen bezala erlijioak ez du bere hezkuntzan eraginik izan. Hori horrela, politikoki komunismoaren gain zegoela eta erlijioaren eragin handirik ez zuen ingurune horretan bizi zen. Ikasketekin aurrera jarraitu zuen eta ikastea gustuko ez zuenez goi-mailako ikasketak ez zituen amaitu. Hasiera batean pedagogia egin nahi izan zuen, baina azterketa bat gainditu ez zuenez, soziologia aukeratzea erabaki zuen.

Lehen aipatu bezala goi-mailako ikasketak amaitu gabe utzi eta ezkondu behar izan zuen, bestela bere senarra izango zenaren etxean bizitzen ez baitzien uzten. Nahiz eta berak esan erlijioaren eraginik ez zuela izan, kasu honetan argi eta garbi ikusten da erlijioaren ideologiaren ezaugarri bat. Hala ere, ez ziren elizaz ezkondu, eta haurdun geratu zen.

Honekin batera, haurra eduki eta denda komertzial bat ireki zuen, baina negozio hau ez zihoanez ongi, itxi eta denboraldi baterako Italiarantz joan zen lanera, bere alaba eta gizona Polonian utziz. Italiatik itzuli eta alargun geratu zen. Bere gizona istripu batean hil zen eta honek bere bizitzan aldaketa nabarmen eta esanguratsu bat suposatuko du.

Aldi berean, bere anaia Euskal Herrira etorri zen, kamioilaria zen eta hona etortzean gaur egun bere emaztea denarekin maitemindu eta bertan geratuko zen bizitzen. Bere anaiak eta emazteak semea eduki zuten eta hona bera zaintzera etortzeko proposamena egin zion. Senarra hilik zegoelako, bere betiko nahia Poloniatik atera eta beste herrialde batetara joatea zelako, bertako egoera sozio-politikoarekin (komunismoa) gustura ez zegoelako..., Euskal Herrira etortzeko aukera hautatu zuen.

2003ko Urriaren 22an etorri zen ziur esatearren. Anek aipatu zigun elkarrizketan zehar, paperik gabe etorri zela bidaiatzeko inolako arazorik izan ez zuelarik. Honek,

Polonia Europar Batasunean sartu zelako, herrialdeetatik bidaiatzeko aukera askeagoa suposatzen du.

Baina Euskal Herrira etorri zen, Zumarraga-Urretxura hain zuzen ere, eta anaiaren semea zaintzera etorri zen. Bere anaiaren pisuan geratu zen bizitzen eta denbora tarte horretan gaztelania ikasi zuen eta alokairu bat ordaindu ahal izateko lanean hasi zen. Baina lanean hasi zenean, erresidentzia paperak ez zituen eta hori dela eta kontraturik gabe lanean hasi behar izan zen. Sei lan batera gauzatzen zituen eta denbora laburrean, lantokiko jabeak kontraturik gabeko pertsonak zituela ohartzean, lana utzi zuen eta lanik gabe geratu zen. Egoera honetan ordaintzeko dirurik ez zuenez eta Pedrok, bere lagun batek, berarekin bizitzeko proposamena egin zion. Gaur egun berarekin bizi da, lanean dihardu eta ez du pisuko alokairua ordaintzen.

Azkenik aipatu beharra dago, Euskal Herriak eta batez ere Zumarraga-Urretxu herriek eskaintzen dioten segurtasuna izugarria dela dio. Horrela bere alaba kalean zehar askatasunez ibiltzeko aukera duela dio. Hala ere, bere alaba Poloniara itzultzeko nahia du eta Poloniako familiarekin kontaktua ere mantentzen dutela azpimarratu beharra dago, bai telefonoz, egun berezietan joan-etorriaz (komunioa egin zuenean hona etorri zirenean, aurtengo gabonak alaba Poloniara bidaliko du...).

## **INSTITUZIOAK**

Gure elkarrizketatuaren bizitza historian agertzen diren instituzio nagusienak honako hauek direla esan genezake, instituzio hauek gizarte kontrolaren sistema arau emaileen igorleak edo instantziak izaten direlarik:

- 1) Familia
- 2) Eskola
- 3) Eliza
- 4) Estatua
  - 4.1) Lege juridikoa/Penala
  - 4.2) Osasuna
  - 4.3) Gizarte Zerbitzua

Familia da gizabanakoa hezteko eta moldatzeko lehenengo kontaktua duen instituzioa. Familia ohitura eta baloreak transmititzen ditu eta honek etorkizunean norberaren autonomia eraketarako bidea emango dio. Gure elkarrizketatuaren bizitzan zehar hiru familia mota bereiz daitezke, Anek berak duen rola arabera bereiztuak. Hala nola, alabarena, emazte eta gurasoarena, eta azkenik, guraso bakarrarena. Alabarena eta, emazte eta gurasoarena, Polonian gauzatzen dira, guraso bakarraren rola Euskal Herrian kokatzen delarik.

Hautzaro garaian, hau da, alabaren rola zuenean, bere garairik zoriontsuena bizi izan zuela atzeman daiteke, berak dioen bezala, bera garai horretan ez baitzuen erantzukizun handirik. Bere hartzaroko familia egiturean, Anek bereizketa bat egiten du bere gurasoekin; aitak “gogorraren” papera betetzen zuela esaten du, eta amak ordea, “sentikorrarena”. Hala ere, aipatu beharra dago, alabarekiko uztartzen zuten hezkuntza maila berekoa zela, hau da, amaren rola ez zen etxe barruan kokatzen eta aitak amaren moduan etxetik kanpo lan egiteaz gain, etxean ere zeregina zuen. Gainera esan, elkarrizketan zehar hezkuntzari buruz guraso biak arduratzen zirela dioela. Gurasoez gain, anaiaren presentzia nabarmendu behar dugu, nahiz eta, bizitzaren etapa honetan ez hitz egin gehiegi berari buruz. Hala ere, beranduago, emigratzeko garaian erabakia hartzeko faktore garrantzitsuenetariko bat izango da.

Ezkondutzearen, emaztearen eta amaren rola beteko du, baina ezkontzearen arazoia batera bizitzen jartzeko nahia izan zen. Ezkondu eta denbora gutxira, haurdun geratu zen eta hemendik aurrera amaren rola ere bete beharko du. Alaba izanagatik eta diru beharra zela eta, Italiara lanera joateko eskaintza onartu zuen eta bertan, alaba eta senarra Polonian utzita, hilabete pare bat igaro zituen.

Azkenik, Italiako esperientzia igaro ondoren Poloniara itzuli eta senarra auto istripuz hil egin zen. Horrela, guraso bakar modura bere alaba hezi beharko du. Garai honetan, eta lehen aipatu bezala, bere herrialdetik joateko nahiak eta momentu horretan anaiaren semea (Aneren iloba) zaintzeko eskaintza jasotzeak, Euskal Herrira etortzeko erabakia erraztu zion. Gaur egun, guraso bakarreko rola betetzen badu, hau da, familia monoparentala, bere laguna den Pedoren laguntza jasotzen du etxebizitza eskainiz. Aipatu beharra dago, etorkina izanagatik duen berezitasunez gain, gaur egungo gizartean guraso bakarra izateak dakartzan konplexutasunak atxiki behar zaizkiola.

Eskola gaur egun sozializatzeko eremua da, hezkuntzaren pean. Eskolak eskaintzen duen hezkuntza mota parekoa da, bere bizitza historian agertzen diren bi herrialdetan, hau da, Polonian eta Euskal Herrian. Polonia Europar Batasunean sartzearekin batera hezkuntzak gizabanakoarengan eragin berdintsuagoa eragiten du, beraz, hezkuntza antzekoa da. Anek aipatzen duen desberdintasunik nabarmenenak, ebaluatzeko garaian erabiltzen duen puntuazioa eta irakasle gurasoen arteko hartu-emanak dira. Derrigorrezko hezkuntza jaso ondoren goi-mailako ikasketei ekin zien, soziologia ikasketak burutu nahi zituelarik. Ikasketa hauek ez zituen burutu ez zituelako bere borondatez hasi, eta amaren nahia zelako, eta lanean hasi zen. Gaur egun, alabak Polonian jaso zuen hezkuntzari jarraipen bat eman ahal izateko eta Euskal Herriko kultura eta baloreak barneratzeko nahiaz, ikastola batean burutzen ditu ikasketak.

Elizak Anek dioenez eta elkarrizketan zehar ikus daitekeenez, ez du presentzia handiegirik izan bere bizitzan zehar. Hala ere esan beharra dago, zeharkako eragina nabari daitekeela gaur egungo pertsona ororen gain bezala (jaunartzea, hileta elizkizunak, ezkontza...). Gainera, bi herrialdeen arteko alderaketa egiten duenean, Elizaren presentzia Polonian nabariagoa dela gaur egungo Euskal Herrian baino dio.

Estatuaz hitz egiten duenean bi herrialdeetan gertatu izan diren bi botere mota desberdinen alderaketa egiten du. Poloniar dagokionean, komunismoaren presentzia aipatzen du eta elkarrizketatuak ez du politika edo ideologia honekiko begirune edo adostasun handirik azaltzen. Badirudi emigratzeko faktoreetako bat arrazoi hau izan dela eta Europar Batasunean Polonia sartzeko erraztasunak eman dizkiola Euskal Herrira etortzerakoan dio.

Estatuaren barnean dauden azpi-instituzio moduan Instituzio juridiko eta penala aipatuko dugu, bertan egin dituen arau juridikoen urraketak aipatuko ditugularik. Hasiere batetik, etorkina izateagatik erresidentzia paperen arazoa dago, honek lehen unetik arau juridiko eta penalaren urraketa dakarrelarik. Nahiz eta instituzio hauetako aktoreak (poliziak, epaileak...) lege urraketa hau ez atzeman lan esparrurako beharrezko egin zitzaiolako erresidentzia paperen egoera aldatu behar izan zuen. Lege hausketa honek, sistematikoki beste lege hauste bat ekartzen du; lana lan-kontraturik gabe lan egitearena eta honek lantegia bera ere eragiten duelarik. Erresidentzia paperak lortu aurretik, sei lan batera edukitzea eta lanbide hauek mantendu ahal izateko drogen kontsumoaren presuntzioa izango liriteke diskurtso mediko hegemonikoaren bi arau urraketa (osasan lan ohitura, drogen kontsumoa...). Estatuaren menpe dauden osasan instituzioek osasan arau hauek igortzen dituzte, estrategia prebentiboen bitartez, adibidez, zortzi orduko loaldiaren gomendio eta beharra.

Estatuaren menpe dauden Gizarte Zerbitzuetako instituzioak eta bere gain hartzen dituen azpi-sareak, erresidentzia paperak lortzeko laguntza eta Helduen Alfabetatzean (EPA) aurkituko ditugu Aneren bitza historian zehar. Lehenengoan, Udaletxearen Gizarte Zerbitzuetako langileen laguntza jaso zuen arau juridiko baten arazoa konpontzeko nahiarekin eta bigarrean, sozializatzeko (hizkuntza ikasi, lagunak egin...) oso baliagarria izan zela aipatzen digu. Bere bizitza historiatik aipagarria da, Helduen Hezkuntzako eskoletan ezagutu zuen Inma irakaslearen presentzia, gaur egun erreferentziatza eta lagun mintzat duelarik.



## ARAUAK

Gure subjektuak hautsi dituen arauak honako hauek izan dira:

Lehenik eta behin aipatu beharra dago, gizarte honetan legalitatearen aldetik paperek duten garrantzia. Hori dela eta, esan beharra daukagu, Ane Euskal Herrira iristeko ez zuela inolako erresidentzi baimenik behar izan, baina egoera hau aldatu egin zen, hemen egunerokotasunean sartu behar izan zuenean, lan bila hasi zenean, alegia. Lege urraketa hau taberna batean lanean hasi zenean gauzatu zen. Momentu honetan bi lege urraketa bateratu ziren: alde batetik, orain aipaturiko erresidentzi baimenarena, eta bestetik, kontraturik gabe lan egitea.

Beste alde batetik, sei lan edukitzeak suposatzen duen arau haustek aipatuko ditugu. Arau hauste moralari dagokionean, uste dugu hainbeste lan batera izateak, pertsonaren duintasuna nolabait apurtzen dela, esplotazio puntu batera iritsi daitekeelarik. Sei lan hauek edukitzearen arrazoia bere alabaren ongizatea bermatzea eta beraiek zituzten kapritxoak ordaindu ahal izatea zen. Honetaz gain, lan guzti hauetaz arduratzeak, alabaren nolabaiteko atentzio falta ekar dezake, baina bizi den herriak eta Pedrorrekin bizitzeak ematen dion seguritateak alabari askatasun gehiago ematea ahalbidetu du, honela Anek beretzako denbora eta lan egiteko denbora gehiago edukiz. Azkenik, arau hauste honekin amaitzeko, aipatu beharra dago osasun arauen urraketa. Ane-k, sei lan ezberdinez arduratzeak, bere osasunaren atentzioa alde batera uztea ekarri zio, loaldien eta jatorduen orduei esaterako, arreta gutxiago eskainiz.

Ildo honetatik jarraituz, elkarrizketan zehar aipatu digu, aurrez aipaturiko lan guzti hauek aurrera eraman ahal izateko drogen kontsumora jo beharra izan zuela. Kontsumo hau ez zen adikzio bilakatu, eta Angelina iritsi eta lanak banatu zituztenean, kontsumitzeari utzi zion. Aipatu beharra dago Anek gai honen inguruan hitz egitean, ez dela bere buruaz batere arro sentitzen.

Azkenik, familiaren araua hausten duela esan genezake. Alde batetik, alargun gelditzearen ondorioz, alaba baten heziketaz arduratzen da bera bakarrik, alabaren aurrean aitaren eta amaren rolak berak hartuz. Bestalde, eta arau hauste honekin lotuta, bere gurasoengandik urruti joanak ere, arau hauste honekin zerikusia duela esan dezakegu, noizbehinka bakarrik elkartzen baitira ikusten baitira. Hala ere, beraien arteko harremana oso estua dela ikusi dugu, eta herri berean bizi diren baina familia askok baino gehiagotan hitz egiten dute.

## **GIZARTE KONTROLA**

Gizarte kontrola, instituzioen estrategia eta zehapen sozialen multzoa da.

Gizarte kontrolaren helburua, gizabanakoa menperatzea eta hezte da komunitateko arauen bitartez. Sistema sozialak hainbat mekanismo ditu, eta mekanismo hauen bidez, sistema sozialak bere nagusitasuna inposatu eta ezartzen du.

Gizarte kontrolaren azterlana egiteko, zenbait faktore aintzat hartu behar dira:

- 1) Sistema arau emaile desberdinak; sistema morala, militarra, erlijiosoa, ohituren sistema...
- 2) Sistema arau emaile hauen igorleak eta instantziak; eliza, iritzi publikoa, familia, eskola, osasun sistema...
- 3) Estrategiak; prebentzioa, sozializazioa, zapalkuntza...
- 4) Kontrol sozialaren zehapenak; eskola (honen bidez gizabanakoa moldatu)...
- 5) Jasotzaileak; sektore desberdinak (etorkin taldeak, emakume taldeak...)

Gizabanakoaren adostasuna eta moldaketa lortzeko gizartea bi motatako instantziez baliatzen da: instantzia informala eragileak eta instantzia formala eragileak. Instantzia informalaren eragileen artean familia, eskola, lana, iritzi publikoa... aipatu beharko genituzke eta instantzia formala eragileen artean polizia, justizia...

Gizarte kontrol informalaren eragileek, gizabanakoa baldintzatzen saiatzen dira, gizabanakoa gizarte arauetara molda dadin, prozesu luze eta sotil baten bidez. Familian hasten da oro har, gero eskola... Honekin gizabanakoaren jarrera konformista bilatzen da. Inposatzen den ereduak gizabanakoak bereganatzen du.

Gizarte kontrolaren instantzia informalek porrot egiten dutenean, instantzia formala abian jartzen dira eta hauek modu hertzakorrez jarduten dute, kasu gehienetan zigorrak jartzen dituztelarik. Zehapen negatibo sozial hauek estigmatizatuak dira, eta araua urratu duenari status berezi bat ematen die; desbideratuaren statusa, delitugilearen statusa.

Gure elkarrizketatua, gizarte kontrolaren jasotzaile sektore bereizgarri batetan kokatzen dugu, etorkinen sektorean hain zuzen ere. Sistema arau emailez hitz egin behar denean, kontutan hartu behar da gure elkarrizketatua bi herrialdeetan bizi izan dela eta, beraz, sistema moral, militar, erlijioso, ohituren sistema... ezberdin bi ezagutzen ditu. Hala ere, bere pentsakera eta ideologia dela eta, esan daiteke bere bizitzan gehien eragin duten sistema arau emaileak berdina direla bi herrialdeetan, Polonian sistema moralak pisu gehiago zuelarik eta hemen, berriz, sistema judizial/penal. Instantziei dagokionez, argi uzten du familia eta eskola direla bere bizitza historian zehar gehien nabarmentzen direnak. Justiziak ere badu bere pisua instantzia moduan, paper kausak zirela eta.

Gizarte kontrolaren eragileak borondate orokorreko transmisioaren elementuak dira; gizartean inposatzen diren baloreak borondate orokorreko hartzen dira.

Gizarte kontroleko igorle formalek, gizarte asimetriko eta desberdinaren zerbitzurako bideak, filtroak dira. Transmisio honen bitartez, dominioaren egiturak iraunarazten dira, beraz, bidegabekeriak sustatzen dituzte.

Gure subjektuaren kasua ez bada ere, gaur egun etorkinen aurkako hainbat bidegabekeria ikus ditzakegu, eta norbaitzuk horrelako ekintzak gizartearen borondate orokorraren isla izango bailitzan saldu nahi digute hedabideen bitartez.

Kontrol sozialaren ekarpen hau, LABELLING-en teoriari edo etiketajearen teoriari dagokio. Urte askotan kriminologiaren ikergunea delitugilea izan bada, Labelling-en teoriaren ekarpenari esker, kriminalitatea aztertu beharrean, KRIMINALIZAZIOAREN teoria gauzatu da. Beraz, kriminalitatearen teorietatik kriminalizazioaren teorietara igarotzen da.

Teoria honen autoreek desbideratzearen eredu etiologikoa zalantzan jartzen dute, izan ere, kriminalitatearen teoria eta autoreek krimengilea nolakoa den, jatorria, portaera... aztertzen baitzuten. Hau da, kriminalitatea aztertzeko beharrezkoa da kontrol soziala aintzat hartzea. Delituaren kontrol eraginkorrak bolumena, egitura eta kriminalitatearen dinamika taxutzen ditu, beraz gizarte kontrolak gizarteak delitugileari buruz sortzen duen irudia baldintzatu egiten du.

Beraz, legeak eta legearen aplikazioak ahalbideratzen du delitua eta delitugilea existitzea. Beste teoria batzuek esango dute erantzukizuna berea dela, delitugilearena alegia. Labelling teoriak ordea zera dio; legean bertan bilatu behar dela delituaren definizioa. Beraz, delitugilea ez da existitzen den zerbait, definitutako norbait baizik.

Kontrol sozial formala desbideratzearekin eta delinkuentziarekin harremanduta dago, eta kontrol soziala kriminologiaren zati bat da.

Kriminologo tradizionalak (positibistak), beti ordena sozialaren kontsentsuzko eta armoniazko ikuspegia izan dute. Beraz, garrantzia beti delitugileari eman dio, baina paradigma berri hauekin beste eredu bat sortu dute eta kontrol sozialean jarri dute begirada. Beraz, positibistek ez dituzte zalantzan jartzen definizio legalak, ezta ere esparru arau emailea. Ez ditu zalantzan jartzen esparru arau emaileak (arauak), honek interes orokorrak hezuramitzen, gauzatzen baititu definizio legalekin batera.

Etiketatzaren ikerketa hauek desbideratzearen interes gunea leku aldatu dute, hots, aldaketa nabarmena gertatu da, garrantzia kontrol sozialari eman diotenean.

Etiketatzaren teoriak kontrol sozialaren hiru berezitasun bereizten ditu:

- 1) Kontrol sozial formalaren portaera hautakorra eta diskriminatzailea da. Honek, etorkinekiko gizarteak duen ikuspegi hautakorra eta diskriminatzailea islatzen du.
- 2) Gizarte kontrolaren eragileek ez dute arau haustea atzematen, arau haustea sortzen dute eta arau hauslea etiketatu egiten dute. Etorkina izategatik, erresidentzia paperak direla eta, arau haustea dago eta arau hauste hau sortua izan da, ala kanpotik datozen etorkinak etiketatuak dira arau hauste hau dela eta.
- 3) Kontrol sozial formalak ondorio estigmatizatzaileak dauzka (honekin lotuta bigarren desbideratzea gerta daiteke). Gizartearen ikuspegi orokorrak (diskurtso dominanteak), etorkinak estigmatizatu egiten ditu, nahiz eta gure elkarriketatuak bere itxura dela eta ez dirudiela arrotza dioen eta ez dituen ondorio estigmatizatzaileak jasan bere esanetan.

Goffan, Matza... eta horrelako autoreek garatzen dituzten teoriak puntu komunak dituzte; jokabide konbentzionalaren ikuspegitik egiten duten kontzeptualizazio manikeoa baztertu egiten dute.

Beraz, patologiaren nozioaren erabilera aztertzen dute eta beste alternatiba bat eskaintzen dute; Goffmanek kultur aniztasuna eta irizpide/kriterio ezberdinak azpimarratzen ditu, hau da, desbideratuaren hitza aintzat hartzen dute, normalaren hitza kolokan jarriaz. Askotan normalaren ikuspegia egitean kulturaren ikuspegitik egiten da eta ikuspegi hau etnozentrikoa izaten da. Etorkinen kasuan, normalak bertakoak kontsideratzen gara eta etorkinekiko sortzen dugun ikuspegia guztiz etnozentrikoa nabaria da; ez ditugu beraien erlijio edo ohiturak ulertzen...

Neutraltasun zientifikoaren ideia zalantzan jartzen dute, hau da, objetibotasunaren ideia zientzia fisikotik jaso dela esaten dute. Autore hauek uko egingo diete ideia honi. Autore hauek konpromisoa (forma zientifikoa), helbidea, desbideratua parean jartzea proposatuko dute. Behaketa enpatikoa proposatuko dute eta behaketa hau askotan definizioak neutralizatzeko baliabide eraginkorra da.

Egile hauek garrantzi handia ematen diote instituzio batzuei; instituzio hauetako adituek (psikiatreek, psikologoak...) desbideratzearen definizio soziala zehazten baitute. Beraz, autore hauen arreta establezimendu hauetan ezartzen dute eta instituzio hauen helburua desbideratuak bergizarteratzea eta zuzentzea da.

Desbideratua etengabe eta derrigorrez estatuari lotuta dagoela dio Beckerrek.

### ESTATUA ETA KONTROL SOZIALA

“Estatua” eta “kontrol soziala” oinarriko espresioak izan dira gaur egungo generazioen hiztegi politiko-kulturalean. Estatua eta kontrol soziala hitz-eztabaida baten erdian aurkitu dira, eta eztabaida honetan giza-zientziei dagozkien hainbat disziplina multzo eta hainbat jarrera politiko desberdin aurkitu dira.

Normalean, bi adiera hauek elkarren artean duten erlazioarengatik aurkezten dira, hala ere, hauek ez dira elkar-aldagarriak eta ez daude beraien artean lotuta modu instrumental batetan. Asko dira “estatuaren funtzioa” gizarte kontroleko “mekanismoak” eta “estrategiak” definitzea eta maneiatzea dela pentsatzen dutenak. Sinesmen hau, teoria soziologikoaren aurrerapena bezala deskribatu da, bereziki kriminologia “kritikoa” eta desbideratzearen soziologia bezala ezagutzen diren arlo espezializatuetan.

Estatuan zentratutako kontrol sozialaren ikuspegia aurkezten duten autoreak dira ere, analisiaren kontrola mekanismo “disziplinario” eta “diskurtsibo” batetan enzerratzen dutenak, Foucault esaterako. *“La sociedad contemporánea puede ser denominada sociedad disciplinaria. La formación de la sociedad disciplinaria puede ser caracterizada por la aparición, a finales del siglo XVIII y comienzos del XIX, de dos hechos contradictorios, o mejor dicho, de un hecho que tiene dos aspectos, dos lados que son aparentemente contradictorios: la reforma y reorganización del sistema judicial y penal en los diferentes países de Europa y del mundo. Esta transformación no presenta las mismas formas, amplitud y cronología en los diferentes países”.* (M. Foucault: 1978, 91).

Honen aurrean, Melossi hau dio: “yo sostengo que los conceptos de estado y de control social pertenecen a tradiciones intelectuales distintas que están empotrados en situaciones históricas diferentes. En estas situaciones disímiles, dichos conceptos fueron utilizados con el propósito de lograr mantener el orden político y social, y no simplemente con el de describirlo”. (D. Melossi: 1992, 13).

Estatuaren eta kontrol sozialaren nozioek, asko kargaturiko/sesgaturiko herraminta kontzeptualak errepresentatzen dituzte eta ez dira erabili behar ez bada kontziente, sortuak izan diren, eta gaur egun oraindik dirauten esanahi multzo konplexuez osatua dagoela.

## DEMOKRAZIA ETA KONTROL SOZIALA

Estatu kontzeptuaren erabilera orokortuaz bereizten ziren gizarteetan garatu zen gizarte kontrol forma, kontrol sozial *erreaktiboa* izan zen. Hau da, zentsuraren inibitzaile portaera erara. Komunikazio gradurik altuena, bereizgarria dela gizarte demokratikoetan, gizarte kontrol *aktiboarekin* batera garatu zen, hau da, portaera bat debekatu beharrean beste bat sortzen du.

Chicagoko soziologia eskolaren lanak, interakzioan oinarritutako orden sozialaren kontzeptuaren elaborazioan lagundu zuen. Chicagoko eskolak sortutako teoria hau, kontzeptu pragmatiko batetan oinarritzen zen, zeinean komunikazioa antolamendu sozialean oinarrituta dagoen ekintza mota bat den.

Eskola honen ondorengoak publikoaren kontzeptua erabiltzen zuten, kontrol sozialaren kontzeptua publikoaren barnean erabiltzen zuten bezala, gizarte politiko demokratiko baten funtzionamendu mota deskribatzeko helburuarekin. Mills-en ustetan, “*la organización de la comunicación en una sociedad de masas produce un número incesante de significados contruidos en serie, que bien pueden nulificar la existencia de un público libre*”. (D. Melossi: 1992, 18)<sup>1</sup>. Bide batez, publikoa kontrol izkutu batez ordezkaturik ikus daiteke, baina oso zentralizatua.

Publiko baten ideiak, bai eta honekin batera doan kontrol soziala publikoaren barnean atzematen duen ideiak, gero eta espresio handiagoa eman dio XX. mendeko demokrazia masen egoera politikoari. Publikoa, kontrol sozialaren ekintza eremu makroskopikoa da. Baiezkoan edo kontsentimenduan oinarritzen den kontrol forma bat, demokraziaren agerpenari atxikirik agertzen da. Kontrol mota boteretsu bat da, jokabideak ekoizten baititu. Bestalde, indarkerian oinarritzen den kontrol mota ahula da, izan ere zentsura forma bat besterik ez da, eta ez du inongo ekoizte izaerarik.

Gizarte demokratikoetan, demokratizazioak berak egonkortutako praktika zentralistaren aurka borrokatu behar du, gizarte demokratikoetan publiko kontzeptua arriskuan aurkitzen baita. Publikoaren ideia, bereziki Estatu Batuetako kulturen ulertua izan zen bezala, hondar ale baten ideia izan zen, komunikazio kanal batzuen trama, definizio normatiboengandik erabat independenteak ziren eta. John Dewey-ek “Publikoaren eklipsea”ri buruzko kapitulu bat idatzi zuen, kapitalismoak egoera hau ezegonkor bilakatzen duela ziolarik. Dewey ondorengo ondoriora iritsi zen: “*Contamos,*

---

<sup>1</sup> Mills, C.W.; 1957: *La élite del poder*. (Fondo de cultura económica, México) in Melossi, D.; 1992: *El estado del control social*. (Siglo veintiuno de españa editores, s. a., Madrid)

*como nunca antes, con las herramientas físicas de la comunicación. Los pensamientos y las aspiraciones que son congruentes con ellas, no se comunican, y, en consecuencia, no son comunes. Sin tal comunicación el público seguirá siendo una especie de sombra y carecerá de forma, buscando espasmódicamente; pero sólo capturaré y sostendrá su sombra, en vez de su sustancia. En tanto la Gran Sociedad no se convierta en una Gran Comunidad, el público permanecerá eclipsado. Únicamente la comunicación puede crear una gran comunidad. Nuestra Babel no es de lenguas sino de signos y símbolos sin los cuales es imposible la experiencia compartida". (D. Melossi:1992, 242)<sup>2</sup>.*

